

GESTIOKO TEKNIKARIEN

ESKALA (INGURUMENA)

LAN-POLTSA HANDITZEKO

HAUTAKETA PROZESUA

LEHENENGO ZATIA - TEORIKOA

2019KO OTSAILAREN 1EKO ERABAKIA

ARIKETA TEORIKOA

- 1. Laneko Arriskuen Prebentzioko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer parametro eduki behar da/dira kontuan arrisku bat larritasunaren ikuspuntutik kalifikatzeko?**
 - a) Kaltea gertatzeko probabilitatea eta kalte horren gogortasuna
 - b) Eragina izan dezaketen pertsonen kopurua
 - c) Ez dago irizpiderik arrisku bat larritasunaren ikuspuntutik kalifikatzeko
 - d) Arriskua minimizatzeak izango lukeen gastu ekonomikoa
- 2. Laneko ingurunean zer esan nahi dute NBE siglek?**
 - a) Narriadura Bereziatarako Elastikoa
 - b) Nekeaz Babesteko Ekipoa
 - c) Norbera Babesteko Ekipamendua
 - d) Noranzko Biko Esposizioa
- 3. Estatuko Administrazio Orokorren zer organo zientifiko eta teknikok du laneko segurtasuna eta osasuna aztertu eta ikertzeko xedea?**
 - a) Industria Ministerioak
 - b) AENOREk
 - c) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak
 - d) Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak
- 4. Emakumezkoen eta Gizonezkoen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, EAEko pertsona anitzeko administrazio-organoei ordezkaritza orekatua izan behar dute; horretarako, sexu biek**
 - a) % 50eko ordezkaritza izan behar dute
 - b) gutxienez % 30eko ordezkaritza izan behar dute
 - c) gutxienez % 40ko ordezkaritza izan behar dute
 - d) gutxienez % 45eko ordezkaritza izan behar dute
- 5. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea**
 - a) Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan burutzen dituen jarduketak koordinatzeko organoa da
 - b) Eusko Jaurlaritzako sail guztietako ordezkariek osatzen dute
 - c) Osakidetza atxikita dago

- d) autonomia-, foru- eta toki-administrazioko ordezkariak osatzen dute

6. Zer udalerrik izan behar dituzte harrera-pisuak etzeko tratu txarren biktimek dituzten babes- eta bizileku-premia larriei erantzuteko?

- a) 10.000 biztanletik gorako udalerriek
- b) 20.000 biztanletik gorako udalerriek
- c) 50.000 biztanletik gorako udalerriek
- d) 100.000 biztanletik gorako udalerriek

7. Adierazi hauetako zer ildo estrategiko EZ den jasotzen UPV/EHUren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Planean:

- a) Genero-ikuspegiaren txertaketa gizarte- eta lan-harremanetan
- b) Genero-ikuspegiaren txertaketa Unibertsitatean, erakunde gisa, eta Unibertsitateak gizartearen duen irudian
- c) Genero-ikuspegiaren txertaketa jazarpenari, jarrera sexistei eta bazterkeriaren pertzepzioari dagokienez
- d) Genero-ikuspegiaren txertaketa ikerkuntzan

8. Garapen jasangarrirako zenbat helburu jasotzen dira 2030 Agendan?

- a) 15
- b) 20
- c) 17
- d) 23

9. Zein da garapen jasangarrirako laugarren helburua?

- a) Genero-berdintasuna
- b) Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
- c) Osasuna eta ongizatea
- d) Kalitatezko hezkuntza

10. Zer da Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenerako Aholku Kontseilua?

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan ingurugiro-arloan diharduten administrazioen harreman, parte-hartze eta koordinaziorako organo bat
- b) ingurumenaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako saileko sailburuordeek osatzen duten organo bat
- c) aholku emateko organo bat da izaeraz, eta honetarako sortua da: interes sozial eta ekonomikoak dituzten sektoreek eta Unibertsitateak ingurugiro-politika prestatzen, kontsultatzen eta segimendua egiten parte har dezaten sustatzeko
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

11. Euskal Herriko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorraren arabera, ingurugiro-ikuskapena zer-nolako prozesua da?

- a) borondatezkoa, sistematikoa, objektiboa eta aldizkakoa
- b) nahitaezkoa, objektiboa eta jarraitua
- c) nahitaezkoa, sistematikoa eta aldizkakoa
- d) borondatezkoa, ez-sistematikoa eta jarraitua

12. Ingurumen-gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegiara joateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen arabera, agintari publiko batek tasa bat kobra dezake ingurumenari buruzko informazioa eskatzeagatik?

- a) Ez, agintari publikoaren betebeharra da edozein herritarrek eskatzen duen informazio ez-isilpekoa ematea
- b) Bai, baldin eta bere aukerez haragokoa bada edo gehiegizko kostua badu altxor publikorako
- c) Bai, baina arrazoizkoa izan behar du, ez ditu gainditu behar materiala produzitzeko kostuak, eta argitaratuta egon behar du
- d) Bai, egoera guztietan

13. Ingurumen-gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegiara joateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak arautzen du Estatuko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde publikoek ingurumenari buruzko informazioa emateagatik kobra dezaketen tasa. Lege horretan jasotzen denaren arabera, erantzun hauetako zein EZ da zuzena?

- a) Eskatutako informazioa ematen den unean sortuko da tasa
- b) Ez da ordaindu behar tasarik DIN A4 formatuko 20 orri baino gutxiagoko kopiak ematen direnean
- c) Ez da ordaindu behar tasarik informazioa telematikoki bidaltzen denean
- d) Tasaren zenbatekoa zenbatesteko elementutzat hartuko dira informazioaren euskarritarako materialen kostua eta eskatutako informazioa bidaltzearen kostua

14. Ingurumen-gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegiara joateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen arabera, Aarhuseko Hitzarmenak hiru zutabe edo funtsezko eskubide ditu. Esan eskubide hauetako zein EZ den haietako bat:

- a) Ingurumenari buruzko informaziorako sarbidea
- b) Publikoak eskubidea izatea erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko
- c) Justiziarako sarbidea
- d) Ingurumen seguru eta osasuntsu baterako eskubidea

15.O3 troposferikoaren ondoriozko poluzio atmosferikoaz ari garela, hauetako zer baieztapen da zuzena?

- a) O3 troposferikoa ez da jotzen aire-kutsatzailatzat, beharrezko konposatua baita Lurreko bizitza garatzeko, eguzkiaren UV erradiazioetatik babesten baikaitu
- b) O3 troposferikoaren iturri nagusietako bat dira zirkulazioak isurtzen dituen NOx eta COV-en erreakzioak, zeinak eguzki-erradiazioekin gertatzen baitira
- c) O3 troposferikoa kutsatzaile primario bat da, eta eragin kaltegarri ugari ditu; besteak beste, berotegi-efektua eta euri azidoa
- d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira

16. Ikatzak, petrolioak eta gainerako erregai fosilak erabiltzeak SO2 gas ugari isurtzen du atmosferara. Horren eraginez:

- a) ozono-geruza zulatzen ari da
- b) gainazalean tenperatura alderantzikatzen da
- c) euri azidoa sortzen da
- d) berotegi-efektua sortzen da

17. Karbono-konposatuak dira aire-kutsatzaileen talde garrantzitsuenetariko bat. Baieztapen hauetako zein da zuzena?

- a) Karbono-konposatuen errekuntzak hidrokarburo kutsatzaile ugari sortzen ditu, errekuntza hori gertatzen den inguruneke hezetasan erlatiboaren arabera
- b) CO-a kontzentrazio handietan bakarrik jotzen da kutsatzailatzat, eta berotegi-efektua eragitea da haren ondorio kaltegarriena
- c) CO-ak intoxikazioa eragiten dio gizakiari, odoleko hemoglobinak eta oxigenoak erreazionatzea eragiten baitu
- d) CO2-a kontzentrazio handietan bakarrik jotzen da kutsatzailatzat, eta berotegi-efektua eragitea da haren ondorio kaltegarriena

18. Airearen Kalitatearen eta Atmosferaren Babesaren azaroaren 15eko 34/2007 Legearen helburua da aire-poluzioa prebenitzea, zaintzea eta murriztea. Hala ere, poluzio-iturri batzuk lege horren aplikazio-eremutik kanpo daude, araudi espezifiko bat baitute. Zein dira poluzio-iturri horiek?

- a) Zarata eta bibrazioak, erradiazio ionizatzaileak eta ez-ionizatzaileak eta kutsatzaile biologikoak
- b) Sufre oxidoak, nitrogeno oxidoak eta karbono oxidoak
- c) Ozonoa eta konposatu organiko lurrunkorrak
- d) Metalak, metal-konposatuak eta material partikulatua (PM10 eta PM2.5)

19. Zer da aire-kutsatzaile baten mugako balioa?

- a) Jakintza zientifikoetan oinarrituta finkatutako kontzentrazio-maila, gizakien osasunerako, ingurumenerako eta edonolako ondasunei eragiten zaizkien kalteak saihestu, prebenitu edo murrizteko ezartzen dena; denboraldi jakin batean lortu behar da, eta ez da gainditu behar lortu ostean
- b) Ezagutza zientifikoetan oinarrituta finkatutako kontzentrazio-maila; maila hori gaindituz gero, eragin kaltegarriak jasan ditzakete hartzaile batzuek (besteak beste, landareek, zuhaitzek eta ekosistema naturalek), baina gizakiek ez
- c) Kontzentrazio-maila bat zeina gainditzen bada, esposizio-denbora labur batekin, arriskutsua baita gizakien osasunerako; biztanleria osoari eragiten dio, eta eskumena duten administrazioek berehalako neurriak hartu behar dituzte
- d) Kontzentrazio-maila bat zeina gainditzen bada, esposizio-denbora labur batekin, arriskutsua baita biztanleria talde bereziki kalteberentzat, eta eskumena duten administrazioek informazio berehalako eta egokia eman behar dute

20. Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren arabera, zer da IKEn txostena?

- a) Isurpenen kontrolari buruzko txostena
- b) Emisioen kanpo-kontrolari buruzko txostena, ingurumena kontrolatzeko erakunde batek egina
- c) Emisioei buruzko txostena, instalazioaren titularrak egina
- d) Ingurumen-hondamendien ebaluatzaileek egindako txostena

21. Noren ardura da instalazio batean egiten diren jardueren emisioen kanpo-kontrolak egitea beharrezkoak direnean?

- a) Instalazioaren jabearena
- b) Ingurumenean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailarena
- c) Ingurumena kontrolatzeko erakunde batena
- d) Industrian eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailarena

22. Euskal Autonomia Erkidegoan, airearen kalitatearen ebaluazioa egiteko, eguneroko airearen kalitatearen indizea erabiltzen da. Indize hori kalkulatzeko, kutsatzaile hauek hartzen dira kontuan:

- a) NO₂, SO₂, CO₂, O₃ eta PM_{2.5}
- b) SO₂, NO₂, PM₁₀, O₃ eta CFC
- c) NO₂, SO₂, O₃, PM_{2.5} eta PM₁₀
- d) CO₂, SO₂, NO₂, PM_{2.5} eta CH₄

23. Zer da airearen kalitatea zaintzeko sare bat? Zertarako balio du?

- a) Airean dauden aire-kutsatzaileen immisio-mailak zehaztu eta kontrolatzeko neurketa-estazio batzuen multzoa da, eta erabiltzen dira legeak betetzen direla bermatzeko

- b) Industria-iturrietatik eratorritako kutsatzaileen emisio-mailak zehaztu eta kontrolatzeko neurketa-estazio batzuen multzoa da
- c) Airearen kalitatearen inguruan erantzukizun handieneko erakundea da, eta arduratzen da aire-kutsatzaileen gehieneko atalaseak finkatzeaz, aireak goi-mailako kalitate bat izan dezan
- d) Autonomia-erkidego bakoitzean airearen kalitatea arautzen duten autonomia-erakunde batzuen multzo bat da

24. Kyotoko Protokoloa da Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa, eta haren helburua da:

- a) planetaren berotze globala eragiten duten berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea
- b) konposatu organiko lurrunkorren emisioak, zeinek berotegi-efektua eragiten baitute, mugatzera premiatzea Europar Batasuneko herrialde kideak
- c) klima-aldaketaren ondorio nagusiei buruzko azterketa bat egitea
- d) klorofluorokarbuo-konposatuen emisioak murriztea, planetaren berotze globala eragiten baitute

25. Jarraian adierazten diren fenomenoetako zeinek eragiten du klima-aldaketa?

- a) berotegi-efektuak
- b) ozono-geruzako zuloak
- c) poloak urtzeak
- d) smog fotokimikoak

26. Atmosferako gas batzuek erradiazio mota bat xurgatzeak eragiten du berotegi-efektua. Zer erradiazio motak eragiten du efektu hori?

- a) Erradiazio infragorriak
- b) Erradiazio ultramoreak
- c) Erradiazio termikoak
- d) Erradiazio ikusgaiak

27. Esan hauetako zein EZ den berotegi-efektuko gas bat:

- a) Oxido nitrosoa (N₂O)
- b) Karbono dioxidoa (CO₂)
- c) Sufre dioxidoa (SO₂)
- d) Metanoa (CH₄)

28. Euskal Autonomia Erkidegoan, eraikinen energia-eraginkortasunaren ziurtatzea aplikatzen da eraikin eraiki berrietan eta lehendik dauden eraikinetan egindako aldaketa, eraldaketa edo zaharberrikuntzetan, betiere 1.000 m²-tik gorako azalera erabilgarria badute, eta haien itxituren ehuneko jakin batetik gora berritzen bada. Zer ehuneko da hori?

- a) % 25
- b) % 30
- c) % 15
- d) % 10

29. Euskal Autonomia Erkidegoan, eraikinen energia-eraginkortasunaren ziurtatzea aplikatzen da lehendik dauden eraikinetan edo haien zatietan erakunde publiko batek azalera erabilgarri jakin batetik gora okupatzen duenean eta herritarrak bertaratu ohi direnean. Zer azalera erabilgarri da hori?

- a) 250 m²
- b) 300 m²
- c) 150 m²
- d) 100 m²

30. Zer indarraldi du Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan izena emanda dagoen eraikin baten Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriak?

- a) 10 urte
- b) 8 urte
- c) 5 urte
- d) 15 urte

31. Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko irailaren 22ko 178/2015 Dekretua EZ zaie aplikatzen:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko erakunde publikoei
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko sozietate publikoei
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako sektore publikoari
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari

32. Zer da kogenerazioa?

- a) Energia termikoa eta energia elektrikoa edo mekanikoa batera sortzea prozesu bakar batean
- b) Energia elektrikoa eta energia mekanikoa batera sortzea prozesu bakar batean
- c) Energia hidraulikoa eta energia elektrikoa edo mekanikoa batera sortzea prozesu bakar batean
- d) Energia eolikoa eta energia elektrikoa edo mekanikoa batera sortzea prozesu bakar batean

33. Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko irailaren 22ko 178/2015 Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak zenbat murriztu behar du energia-kontsumoa 2020rako?

- a) % 5

- b) % 12
- c) % 15
- d) % 20

34. Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko irailaren 22ko 178/2015 Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eraikinen zer ehunekok izan behar dituzte energia berriztagarriak ustiatzeko instalazioak 2020rako?

- a) % 10
- b) % 25
- c) % 32
- d) % 40

35. Zeren bidez egiten da Euskal Autonomiako lurralde-antolamendua?

- a) Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen bidez
- b) Lurralde-plan partzialen bidez
- c) Lurralde-plan sektorialen bidez
- d) Adierazitako hiru tresna horiek dira beharrezkoak lurralde-antolamendurako

36. "Garraio jasangarria, gizarte, ekonomia eta ingurumenaren ikuspegitik; kalitate onekoa; gizartea eta ekonomia garatzen laguntzen duena; eta herritarren eta ondasunen mugikortasun beharrei erantzuten diena, Euskadi European integratu dadin sustatzearekin batera": zeren ikuspegia da?

- a) Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplanarena
- b) 2015-2020 aldirako Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoarena
- c) EkoEuskadi 2020rena
- d) Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legearena

37. "Bide-segurtasunaren eta trafikoaren kudeaketari lotutako estrategia eraginkorretan oinarrituz, Euskadi mugikortasun seguruaren eta iraunkorraren alorreko erreferentzia bihurtzea. Ildo horretan, herritarrek arduraz jokatuko dute eta erakunde publikoek, eragile pribatuekin lankidetzan, era koordinatuan eta eraginkortasunez jardungo dute trafiko-istripuen kopurua eta larritasuna murrizteko": zeren ikuspegia da?

- a) Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplanarena
- b) 2015-2020 aldirako Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoarena
- c) EkoEuskadi 2020rena
- d) Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legearena

38.Zer da Geoportala?

- a) Administrazio publiko bateko edo gehiagotako zenbait organo eta erakunderen informazio geografikoko zerbitzu elkarreragingarrietarako sarbidea ematen duen interneteko webgunea edo baliokidea, zeinak gune horren bidezko sarbidea duten datu eta zerbitzu geografikoak bilatu eta ezagutzeko aukera ematen duen zerbitzu bat baitu gutxienez
- b) Administrazio publiko bateko edo gehiagotako zenbait organo eta erakunderen informazio hidraulikoko zerbitzu elkarreragingarrietarako sarbidea ematen duen interneteko webgunea edo baliokidea, zeinak gune horren bidezko sarbidea duten datu eta zerbitzu hidraulikoak bilatu eta ezagutzeko aukera ematen duen zerbitzu bat baitu gutxienez
- c) Administrazio publiko bateko edo gehiagotako zenbait organo eta erakunderen informazio demografikoko zerbitzu elkarreragingarrietarako sarbidea ematen duen interneteko webgunea edo baliokidea, zeinak gune horren bidezko sarbidea duten datu eta zerbitzu demografikoak bilatu eta ezagutzeko aukera ematen duen zerbitzu bat baitu gutxienez
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

39.Geografiako Institutu Nazionaleko Zuzendaritza Nagusiak

- a) informazio geografiko eta kartografia ofizialaren kontsultako eta plangintza orokorreko eginkizuna gauzatzen du, eskumena duten agintariek bere ardurak gauzatzeari dagokionez
- b) Espainiako Datu Espazialen Azpiegituraren Geoportala eratu eta mantenduko du, zeinak aukera emango baitu datu geografikoak lokalizatzeko eta Espainiako Informazio Geografikoaren Azpiegitura osatzen duten zerbitzu elkarreragingarrietarako sarbidea izateko
- c) proposatzen dizkie eskumena duten agintariei sektore publikoko administrazio eta erakundeek, Espainiako Informazio Geografikoaren Azpiegitura finkatzeko, egin behar dituzten ekintzak
- d) gaitasuna du informazio geografikoko azpiegiturak eta informazio geografikoko zerbitzuak garatzeko beharrezko jarraibide teknikoak proposatzeko

40.Zer izen du informaziorako lokalizazio zehatz bat ematen duen, zenbait iturritako datuak gurutzatzeko aukera ematen duen eta eremu geografiko batean kokatuta datuak interpretatzeko balio duen informazioak?

- a) Erreferentziazko Informazio Geografikoa
- b) metadatuak
- c) informazio geografikoko zerbitzua
- d) entitatea

41. Zer izen du datu geografikoen eta informazio geografikoko zerbitzuen multzoak deskribatzen dituen eta haien lokalizatu, inbentariatu eta erabiltzeko aukera ematen duen informazioak?

- a) Erreferentziako Informazio Geografikoa
- b) metadatuak
- c) informazio geografikoko zerbitzua
- d) entitatea

42. Erreferentziako Ekipamendu Geografiko Nazionala, Erreferentziako Informazio Geografikoaren parte denez, hauek osatzen dute:

- a) Erreferentziako Sistema Geodesikoak, Koordenatu Sistema Ofizialak, Sareta Sistemak, Espainiako Izendegi Geografiko Nagusian jasotzen den toponimia ofizialak, Kartografia Erregistro Zentralean jasotako lurralde-mugaketek eta Udal Erreferentzia Geografikoen Inbentario Nazionalak
- b) Koordenatu Sistema Ofizialak eta Udal Erreferentzia Geografikoen Inbentario Nazionalak
- c) Sareta Sistemak, Udal Erreferentzia Geografikoen Inbentario Nazionalak eta Erreferentziako Sistema Geodesikoak
- d) Erreferentziako Sistema Geodesikoak, Sareta Sistemak, Espainiako Izendegi Geografiko Nagusian jasotzen den toponimia ofizialak eta Kartografiako Erregistro Zentralean jasotako lurralde-mugaketek

43. Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen arabera, hauetako zein ez da biohondakin bat?

- a) Lorategietako hondakin biodegradagarriak
- b) Elikagai-hondakinak
- c) Elikagaiak prozesatzeko instalazioetatik eratorritako hondakinak
- d) Bioerregaien hondakinak

44. Hondakinak prebenitu eta kudeatzeko politikak lantzeari dagokionez, administrazioek lehentasun-ordena honekin aplikatuko dute hondakinen hierarkia:

- a) Prebenitzea, berrerabiltzea, birziklatzea, balorizatzea eta ezabatzea
- b) Prebenitzea, birziklatzea, balorizatzea, berrerabiltzea eta ezabatzea
- c) Murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea
- d) Ordena ez da garrantzitsua

45. Zer administrazioek egiten du lurzoru kutsatuen adierazpena?

- a) Gobernu zentralak
- b) Autonomia-erkidegoko gobernuak
- c) Lurzoru poluitua dagoen udalerriko gobernuak
- d) Kaltetutako 3 organoen baterako aitortzen bat behar da

46. UPV/EHUko zentro guztiek dute esleituta bere ingurumeneko identifikazio-zenbakia (IIZ-NIMA). Adieraz ezazu zer campusetakoa den hondakin arriskutsuak sortzen dituen eta 2000011136 IIF-NIMA kodea duen zentroa.

- a) Gipuzkoa
- b) Bizkaia
- c) Araba
- d) Ez dago halako IIF-NIMA koderik

47. UPV/EHU n zer material mota erabiltzen da laborategietako hondakin kimiko likidoak kudeatzeko?

- a) Polipropileno zurrunezko edukiontziak; talka, zulatze eta disolbatzaileak jasaten dituzte
- b) Dentsitate eta pisu molekular handiko polietilenoazko txanbilak
- c) Dentsitate eta pisu molekular handiko bidoiak, erabat irekitzekoak Dentsitate handiko polietilenoazko tapa. Altzairu galvanizatuzko itxitura
- d) Polipropileno zurrunezko txanbilak; talka, zulatze eta disolbatzaileak jasaten dituzte

48. Merkantzia arriskutsuak errepidez garraiatzen dituen enpresa orok edo garraio horiekin lotutako ontziratze, betetze edo zamalanak egiten dituztenek segurtasun-aholkulari bat izendatuko dute, eta garraioko eta zamalanetako jarduera horiek berezkoak dituzten pertsona, ondasun edo ingurumenerako arriskuen prebentzioan laguntzeaz arduratuko da. UPV/EHU n, ardura hori du:

- a) CONSEUR 2000
- b) ASEMERPE
- c) ADR Consejeros de seguridad SL
- d) LABORALI

49. UPV/EHU n zer enpresak kudeatzen ditu hondakin arriskutsuak?

- a) SITA SPE IBÉRICA, SL
- b) TRATAMIENTOS GEURIA, SL
- c) LINERSA
- d) SERCONTROL 2000, SL

50. Zer da A ebaluazioko balio adierazlea (EBA-A)?

- a) Gai jakin batek Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruetan era naturalean dagoenean duen kontzentrazio-tartearen mailarik gorenarekin bat datorren balio estandarra
- b) Gai jakin batek Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruetan era naturalean dagoenean duen kontzentrazio-tartearen mailarik baxuenarekin bat datorren balio estandarra

- c) Estandar horrek gai batek lurzoruan duen kontzentrazioa adierazten du; estandar horretatik gora lurzorua eraldatuta dago, eta kutsatuta egoteko aukera ere badago
- d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

51.Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen arabera, zer dira babes-neurriak?

- a) Lurzorua kutsatzen duen ekintzarik ager ez dadin hartutako neurri guztiak
- b) Lurzoruan substantzia kutsatzaileen kontzentrazioak gutxitzeko helburuarekin hartutako neurri guztiak
- c) Ekintza kutsatzailetatik lurzoruan sortutako ondorioak saihestu edo gutxitzen saiatzen diren neurri guztiak
- d) Kutsadurak kalte egindako lurzoruaren edo inguruneen kalitateak denboran zehar izandako bilakaera balioztatu ahal izateko informazioa lortzeko helburua duten neurri guztiak

52.Jarraian azaltzen diren erantzunen artetik, zein EZ da uraren kutsadura termikoaren zuzeneko ondorio bat?

- a) Oxigenoaren disolbagarritasuna murriztea
- b) Uretan gertatzen diren erreakzio kimikoen abiadura areagotzea
- c) Fauna hiltzea asfixiaren ondorioz
- d) Uraren uhertasuna areagotzea

53.Ur-politiken inguruan jarduteko esparru komunitarioa zehazten duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko Urriaren 23ko 2000/60/CE Direktibaren arabera, ibai baten egoera ekologikoa zehazteko ezinbesteko parametroak dira:

- a) Parametro fisiko-kimikoak, hidromorfologikoak eta biologikoak
- b) Parametro fisiko-kimikoak eta biologikoak. Parametro hidromorfologikoak aukerakoak dira
- c) Parametro fisiko-kimikoak eta hidromorfologikoak. Parametro biologikoak aukerakoak dira
- d) Arro hidrografikoaren araberakoak dira

54.Uraren kutsatzaileei dagokienez, zer erantzun da zuzena?

- a) Hondakin biodegradagarriek ez dute behar inolako tratamendurik; beraz, zuzenean isur daitezke ibilgura
- b) Uraren eutrofizazioa nahi ez den ondorio bat da, zeina eragiten baitu uretara nutriente gehiegi isurtzeak
- c) Uraren eutrofizazioa nahi ez den ondorio bat da, zeina eragiten baitu uretara metal astun gehiegi isurtzeak
- d) Hondakin biodegradarriak neurtzeko, hondakin horiek zuzenean aztertzen dira laborategi batean, hondakin horietarako teknika espezifikoen bidez

55.Hondakin-uren araztegi bateko aurretratamendua edo tratamendu fisikoa hauek osatzen dute:

- a) lodi eta finak arbastatzeko sistema bat, objektu solidoak bereizteko; jarraian, harea kentzeko sistema bat, hareak eta partikula esekiak bereizteko; eta koipegabatzeko sistema bat, zeinean airea injektatzen baita koipe, bits eta gainak bereizteko
- b) lodi eta finak arbastatzeko sistema bat, objektu solidoak bereizteko; jarraian, harea kentzeko sistema bat, hareak bereizteko; eta koipegabatzeko sistema bat, zeinean airea injektatzen baita koipeak bereizteko
- c) lodi eta finak arbastatzeko sistema bat, partikula solidoak bereizteko; jarraian, harea kentzeko sistema bat, hareak bereizteko; eta koipegabatzeko sistema bat, zeinean airea injektatzen baita koipeak bereizteko
- d) lodi eta finak arbastatzeko sistema bat lohien lerroaren sarreran, lohietako partikula solidoak bereizteko

56.Planifikazio hidrologikoaz ari garela, Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat demarkazio hidrografiko daude?

- a) 4
- b) 3
- c) 2d) 5

57.Euskal Autonomia Erkidegoak zeren gaineko eskumena du urei dagokienez?

- a) EAEko barne-arroak eta isurialde kantauriarraren ekialdeko erkidego arteko arroak
- b) EAEko barne-arroak
- c) Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa eta EAEko barne-arroak
- d) Ebro ibaiaren arroa eta EAEko barne-arroak

58.Jabari publiko hidraulikora egiten diren isurketek tasa bat dute, arro hidrografiko bakoitzeko ingurune hartzailea aztertu, kontrolatu, babestu eta hobetzera bideratua. Zer izen du tasa horrek?

- a) isurketa-kanona
- b) isurketen kontrolaren kanona
- c) uraren kanona
- d) okupazio-kanona

59.Zer izen du Euskal Autonomia Erkidegoko berezko zergaren izaera duen zeharkako zerga ekologikoak?

- a) isurketa-kanona
- b) isurketen kontrolaren kanona

- c) uraren kanona
- d) okupazio-kanona

60. Jabari publiko hidraulikora isurketak egiteko baimenak bata bestearen atzetik berriztatu daitezke, betiere une bakoitzean indarrean dauden kalitate-arauak eta ingurumen-helburuak betetzen badira; zer iraupen dute gehienez?

- a) 5 urte
- b) 2 urte
- c) 3 urte
- d) 4 urte

61. Isurketen kontrolaren kanonaren maiorazio- eta minorazio-koefizientea kalkulatzeko garaian, hiriko hondakin-urtzat edo asimilagarritzat jotzen da ehuneko jakin batetik gorako industriako hondakin-uren bolumenik EZ duena. Zer ehuneko da hori?

- a) % 30
- b) % 20
- c) % 15
- d) % 35

62. Adierazi hauetako zer parametro erlazionatzen den oxigeno-eskari biologikoarekin:

- a) Materia organiko biodegradagarria
- b) Materia organikoa eta materia ez-organiko oxidagarria
- c) Materia ez-organikoa
- d) Sulfatoak eta materia organiko biodegradagarria

63. Hondakin-uren araztegi bateko lohi-lerroan, lohien digestioa egiten da:

- a) erreaktore aerobikoetan, non bakterio aerobioek lohien materia organikoa degradatzen baitute; prozesu horretan karbono dioxidoa askatzen da
- b) erreaktore aerobikoetan, non bakterio aerobioek lohien materia organikoa degradatzen baitute; prozesu horretan metano gasa edo biogasa askatzen da
- c) erreaktore anaerobikoetan, non bakterio anaerobioek lohien materia organikoa degradatzen baitute; prozesu horretan karbono dioxidoa askatzen da
- d) erreaktore anaerobikoetan, non bakterio anaerobioek lohien materia organikoa degradatzen baitute; prozesu horretan metano gasa edo biogasa askatzen da

64. Uraren analisi batean, zer da oxigeno-eskari biologikoa?

- a) uretako materia organikoa kimikoki degradatzeko behar den oxigeno disolbatuaren kantitatearen neurri bat da
- b) mikroorganismo aerobioek uretako materia organikoa kimikoki degrada dezaten behar den oxigeno disolbatuaren kantitatearen neurri bat da
- c) uretako materia organiko totalaren biodegradagarritasun-maila neurtzeko erabiltzen den parametro bat da
- d) oxigeno disolbatuaren kantitatearen neurri bat da, zeinak adierazten baitu uretako materia organikoaren edukia

65.Zer da ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Batelle-Columbus institutuko sistema?

- a) inpaktuak ebaluatzeko metodo kuantitatibo bat da
- b) inpaktuak ebaluatzeko metodo espresuki kualitatibo bat da
- c) isuriaren ondoriozko poluzioa ebaluatzeko metodo bat da
- d) inpaktuak ebaluatzeko metodo bat da, zeina nekazaritzako ustategietan bakarrik erabiltzen baita

66.Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioetan erabiltzen diren Delphi metodoak:

- a) erabiltzen dira proiektu batek eragiten dien ingurumen-faktoreen garrantzia haztatzeko
- b) erabiltzen dira proiektu batek gizartean duen onarpena ezagutzeko, administrazio publikoak ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin aurretik
- c) informazio publikoaren izapidea ordezkatzeko dute, eragindako talde guztiak ordezkatzeko dituen aditu talde entzutetsu bat dugunean
- d) metodo soziologikoak dira, eta ez dira erabiltzen inoiz

67.Zer jasotzen du Ingurumen Inpaktuaren Azterketa bateko kronogramak?

- a) Proiektua planifikatu, eraiki eta ustiatzeko behar diren ekintza zehatzen (ekintzen zehazteko hirugarren maila) zerrenda bat
- b) Zeharkako inpaktuak identifikatzeko balio duen diagrama bat. Inpaktuak geziekin adierazten dira: inpaktuaren kausa geziaren jatorrian dago, eta, efektua, bukaeran
- c) Taula bat zeinean jasotzen baitira Ingurumen Inpaktuaren Azterketa osatzen duten urrats guztiak, bakoitza hasten den unea eta iraupenaren zenbatespena
- d) Diagrama bat zeinean jasotzen baita ekintzen zehazteko ekintza bakoitza hasten den unea eta iraupenaren zenbatespena

68.Zer da Ingurumen Inpaktuaren Azterketa?

- a) azpifaktoreen pisua kalkulatzeko erabiltzen den tresna
- b) Ingurumen Inpaktua Ebaluatzeko prozeduraren parte bat da

- c) sustatzaileak Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena egin ahal izateko lanaren oinarri bat da
- d) organo substantiboak Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena egiteko hartzen duen oinarria

69.Proiektu batean, zer dira influenteak?

- a) proiektua egiteko behar diren materialak
- b) obrak sortzen dituen isuriak
- c) obrak eragiten dituen atmosferarako emisioak
- d) eraikitako eraikinak

70.Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen arabera, sintesi-dokumentua da:

- a) borondatezkoa
- b) gomendagarria
- c) komenigarria
- d) nahitaezkoa

71.Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen arabera, sintesi-dokumentua da:

- a) laburpen ez-tekniko bat, orokorrean ulertzeko moduan idatzia
- b) laburpen tekniko bat, espezialistei zuzendua
- c) laburpen tekniko bat, obra kontrolatu behar duen pertsonari zuzendua
- d) laburpen tekniko bat, administrazio eskudunari zuzendua

72.Zer da Ingurumen Inpaktuaren Azterketa bateko Ingurumen Zaintzako Programa?

- a) Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari lotutako proiektu baten bideragarritasun teknikoa eta ingurumenekoa aztertzen duen programa
- b) Ingurumen Inpaktuaren Azterketaren parte bat da, zeinak ezartzen baitu azterketan jasotzen diren oharrak eta neurri babesle eta zuzentzaileak betetzen direla bermatzen duen sistema
- c) programa informatiko bat da, zeinak aukera ematen baitu modu automatizatuan zaintzeko proiektu batek Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioan bete beharreko izapideak
- d) Ingurumen Adierazpenaren parte bat da, zeinak bermatzen baitu proiektuaren aukera egokienean aldaketarik ez egoteko baldintza betetzen dela

73.Ingurumen Zaintzako Programa diseinatu behar du:

- a) Ingurumen Inpaktuaren Azterketa egiten duen lantalde teknikoak
- b) eskumena duen tokiko administrazioak
- c) eskualde-administrazioko lantalde teknikoak

- d) eskumena duen ingurumen-organoak kontratatutako lantalde teknikoak

74.Noiz egiten da Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena?

- a) partaidetza publikoaren aurretik
- b) Ingurumen Inpaktuaren Azterketaren, partaidetza publikoaren eta espedientearen ondoren
- c) Inpaktuak identifikatu eta berehala
- d) Ingurumen Inpaktuaren Azterketaren aurretik

75.Noiz egiten da ingurumen-inbentarioa?

- a) Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenaren ondoren
- b) Ingurumen Inpaktua Ebaluatzeko prozeduraren azken faseetan
- c) Informazioa jendaurrean jartzeko fasearen ondoren
- d) Ingurumen Inpaktuaren Azterketaren hasierako faseetan

76.Zer da isofona bat?

- a) Hots-maila bera duen azalera bat irudikatzen duen lerroa
- b) Hots-maila neurtzen duen araua
- c) Hots-mailaren neurketa-unitatea, nazioarteko sisteman
- d) Hots-sekuentzia banatzen den iraupen tipikoko ezaugarri akustiko berezien segmentua

77.Zer da dardara iraunkor bat?

- a) Denboran barrena modu bertsuan gertatzen den edota egoera berean mantentzen den dardara
- b) Estazio batean erreproduzitzen den dardara
- c) Aldi baterako dardara, denboran barrena errepika daitekeen edo errepikatuko ez den gertakari jakin bati atxikia
- d) Denbora tarte labur batean bakarrik gertatzen den bibrazioa

78.Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren arabera zer udal daude behartuta zarata-mapak egitera?

- a) 5.000 biztanletik gorako udal guztiak
- b) 10.000 biztanletik gorako udal guztiak
- c) 50.000 biztanletik gorako udalak bakarrik
- d) 100.000 biztanletik gorako udalak bakarrik

79.Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen arabera, zer da immisio-indizea?

- a) Igorle batek sortzen duen hots-kutsadurari dagokion indize akustikoa
- b) Toki batean eta aldi jakin batean dagoen hots-kutsadurari dagokion indize akustikoa

- c) Igorle batek sortzen duen hots-kutsadura deskribatzeko magnitude fisikoa
- d) Toki batean denbora tarte jakin batez gainditu behar ez den balioa

80.Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen arabera, zer dira zortasun akustikoko eremuak?

- a) Zarata-mapetan mugatutako lurraldeko sektoreak dira, zeinetan immisioek gainditu baititzakete dagokien area akustikoetan aplikatzen diren kalitate akustikoko helburuak, eta lurzorua erabilera, jarduera, instalazio eta eraikuntza jakin batzuetarako murrizketak ezarri ahalko baitira, haietarako ezarritako immisio-mugak bete daitezkeen gutxienez
- b) Gobernuak zehazten duen indize akustikoko balio bat gainditu ezin den espazioak dira
- c) Trafikoaren, industria-jardueren eta kirol- eta jolas-jardueren zaratak asaldatzen ez dituen espazioak dira
- d) Udalek ezarritako immisio-balioak puntualki gaindi daitezkeen lurraldeko sektoreak dira

81.Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen arabera, hauetako zein da arau-hauste larria?

- a) Babes akustiko bereziko eremuetarako eta egoera akustiko bereziko eremuetarako ezarritako muga-balioak gainditzen dituen hots-kutsadura sortzea
- b) Ingurumenari kalte larri bat egiten zaionean edo pertsonen segurtasuna eta osasuna arrisku larrian jartzen denean aplikatzen diren mugako balioak gainditzea
- c) Asmo gaiztoz ezkutitzea edo aldatzea kutsadura akustikoari buruz ematen diren datuak lege horretan arautzen diren jarduerak gauzatzeko baimenak lortzeko eskatzen diren espediente administratiboetan
- d) Eraikinak zaratatik babesteari buruzko eskakizunak ezartzen dituzten arauak ez betetzea, pertsonen segurtasuna eta osasuna arrisku larrian jartzen direnean

82.Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, zer da isurtze bat?

- a) Instalazioko iturri jakinetatik edo iturri lausoetatik, zuzenean edo zeharbidez, airera substantziak, bibrazioak, beroa edo zarata botatzea
- b) Instalazioko iturri jakinetatik edo iturri lausoetatik, zuzenean edo zeharbidez, airera, uretara edo lurzorura substantziak, bibrazioak, beroa edo zarata botatzea
- c) Instalazioko iturri jakinetatik edo iturri lausoetatik, zuzenean edo zeharbidez, airera, uretara edo lurzorura substantziak botatzea

d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

83. Jarraian agertzen diren konposatuak zein ez da jasotzen Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren II. eranskinean, substantzia kutsatzaileen zerrendan?

- a) Amianto (partikula esekiak, zuntzak)
- b) Fluorra eta haren konposatuak
- c) Karbono dioxidoa
- d) Arsenikoa eta haren konposatuak

84. Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, hauetako zer ekintza da arau-hauste oso astun bat?

- a) Ingurumen-baimen integraturik izan gabe jarduera egitea edo instalazioan aldaketa garrantzitsua egitea, baina ez eragitea ingurumenean kalte edo narriadura larri edo ez jartzea pertsonen segurtasuna edota osasuna arrisku larrian
- b) Ez betetzea ingurumen-baimen integratuan ezarritako baldintzak, baina ez eragitea ingurumenean kalte edo narriadura larri edo ez jartzea pertsonen segurtasuna edota osasuna arrisku larrian; halaber, behar diren neurriak ez hartzea arauak beteko direla lehenbailehen berriro bermatzeko eta, horrela, istripu edo gorabehera gehiago ekiditeko
- c) Ingurumen-baimen integratuaren titulartasuna transmititzea, hura emateko eskumena duen organoari jakinarazi gabe
- d) Autonomia-erkidegoek emandako babes-arau osagarrietan ezarritako betebeharrak bete gabe egitea jarduera, haiek jakinarazpenaren eta erregistroaren eskakizuna ezarrita dutelarik, eta ondorioz ingurumenean kalte edo narriadura larria eragitea edo pertsonen segurtasuna edota osasuna arrisku larrian jartzea

85. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbat gune sartzen dira Europako naturagune babestuen Natura 2000 Sarean?

- a) 55
- b) 40
- c) 45 d) 50

86. Zenbat toki jasotzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko gune babestuen sarean, barne hartuta Natura 2000 Sareko guneak, Ramsar hezeguneak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba?

- a) 103 toki
- b) 98 toki
- c) 143 toki

d) 125 toki

87.Euskal Autonomia Erkidegoko Natura 2000 Sarea osatzen dute hauek:

- a) 47 KBE, 4 BBE eta 4 GKL
- b) 37 KBE, 5 GKL eta 6 BBE
- c) 45 KBE, 8 BBE eta 4 GKL
- d) 47 KBE, 4 BBE eta 4 gune KBE eta BBE

88.Zer da unitate funtzional gisa elkarri eragiten dioten landare-, animalia- eta mikroorganismo-komunitateek eta haien ingurune bizigabeak eratzen duten konplexu dinamikoa?

- a) Ekosistema
- b) Espezie batentzako inguru kritikoa
- c) Igarobide ekologikoa
- d) Habitat naturala

89.Euskadiko Natura 2000 Sarean sartzen diren 55 guneek gutxi gorabehera 1.500 km²-ko azalera hartzen dute; lurraldearen zer ehuneko da hori, gutxi gorabehera?

- a) % 20
- b) % 30
- c) % 15
- d) % 35

90.Zer izen du ezaugarri komunak dituzten organismoen taldeak?

- a) taxona
- b) ekosistema
- c) biotopoa
- d) biosfera

91.Zer da EMAS araudia?

- a) Europar Batasunaren araudi bat da, zeinak aukera ematen baitu erakunde baten ingurumen-portaera, nahitaez, ebaluatu eta ikuskatzeko, ebaluazio baten eta ziurtapen baten bidez
- b) NBERen araudi bat da, zeinak aukera ematen baitu erakunde baten ingurumen-portaera, nahitaez, ebaluatu eta ikuskatzeko, ebaluazio baten eta ziurtapen baten bidez
- c) NBERen araudi bat da, zeinak aukera ematen baitu erakunde baten ingurumen-portaera, borondatez, ebaluatu eta ikuskatzeko, ebaluazio baten eta ziurtapen baten bidez
- d) Europar Batasunaren araudi bat da, zeinak aukera ematen baitu erakunde baten ingurumen-portaera, borondatez, ebaluatu eta ikuskatzeko, ebaluazio baten eta ziurtapen baten bidez

92.Zertarako egin zen Ekoscan metodologia?

- a) Metodo bat behar zelako Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak ingurumenaren aldetik sentikortzeko, eta ISO 14001 eta EMAS ziurtagiriak lortzeko baliabide gisa
- b) EAEko enpresa guztiak logotipo berarekin bateratzeko
- c) Metodo bat behar zelako Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak ingurumenaren aldetik sentikortzeko, eta ISO 9001 ziurtagiria lortzeko baliabide gisa
- d) EAEko merkatu ekonomikoa hobetzeko, eta merkatu hori nazioartean lehiakorragoa egiteko

93.Nork egiaztatu eta baliozkotu dezake EMAS araudian oinarritutako ingurumen-kudeaketako sistema bat?

- a) Bereziki horretarako akreditatutako ingurumen-egiaztatzaile batek
- b) Erakundeko barne-auditoreak
- c) Erakundea dagoen eskualdeko administrazioak
- d) Ingurumen-kudeaketako sistemak egiaztatu eta akreditatzeaz arduratzen den Europako Parlamentuko batzordeak

94.Demingen gurpila edo PDCA zikloa da ingurumen-kalitatea etengabe hobetzeko estrategia bat, zeina lau urratsetan egituratzen baita. Zein dira urrats horiek?

- a) Planifikatu, egin, berrikusi eta jardun
- b) Planifikatu, desegin, elkarrekin lan egin, eta jardun
- c) Egin, bukatu, jardun eta planifikatu
- d) Planifikatu, erabaki, egiaztatu eta eguneratu

95.Hauetako zer erakundek EZIN du ezarri EMAS III araudian oinarritutako ingurumen-kudeaketako sistema bat?

- a) EBko zuzendaritza nagusi batek eta beste edozein erakunde publikok
- b) Merkataritza-sozietate batek eta enpresa pribatu batek
- c) Udal edo udalerrri batek eta tokiko edozein agintaritza publikok
- d) Aurreko guztiek har dezakete EMAS sistema

96.Zer da ingurumen-ikuskaritza?

- a) kudeaketa-tresna bat da
- b) nazioarteko arau bat da
- c) enpresak etengabe hobetzeko duen konpromisoa jasotzen duen dokumentu bat da
- d) lege organiko batek arautzen duen prozedura administratibo bat da

97.EMAS araudiaren arabera, hau da ingurumen-ikuskaritzaren definizioa:

- a) erakundeak bere ingurumen-kudeaketako sistemari eta haren prozedurei dagokienez duen eraginkortasuna modu sistematiko, dokumentatu, aldizkako eta objektiboan ebaluatzea
- b) ingurumen-inpaktu esanguratsuak minimizatzeko neurri zuzentzaileen zuzendaritza berraztertzea
- c) enpresa baten kudeaketak ingurumena errespetatzen duela adierazten duen ingurumen-adierazpena
- d) erakunde batek ingurumen-kudeaketako sistema ezartzearen kostua ebaluatzeko erabiltzen duen prebentzioko kudeaketa-tresna

98. Zer desberdintasun dago barruko ingurumen-ikuskaritzaren eta kanpoko ingurumen-ikuskaritzaren artean?

- a) Ez dago desberdintasunik
- b) Barne-ikuskaritzetan, erakundearen alderdi eta prozedurak ebaluatzen dira, eta, kanpo-ikuskaritzetan, erakundetik kanpo datozen mehatxu eta indarguneak
- c) Barne-ikuskaritza erakundeko lantalde batek egiten du, eta kanpo ikuskaritza, erakundekoa ez den enpresa akreditatu batek
- d) Aldeko barne-ikuskaritza batek berekin dakar ingurumen-kudeaketako sistemaren egiaztapena lortzea; aldeko kanpo-ikuskaritza batek, aldiz, inola ere ezin du egiaztatu ingurumen-kudeaketako sistemaren baliozkotasuna

99. Zer da ingurumen-ikuskaritzaren ebidentzia bat?

- a) Auditorearen iritzia subjektiboa, ingurumen-kudeaketako sistema ez dagoela ondo ezarrita dioena
- b) Auditoreak ikuskaritza-prozesuan jasotzen dituen ekintzei buruzko informazio egiaztagarriak, erregistroak eta adierazpenak
- c) Ikuskaritza-taldeak desadostasunak bateratzearen emaitza
- d) Erakunde batek kanpoko erakunde baten ingurumen-ikuskaritza bat izan duela eta aldeko emaitza izan duela egiaztatzen duen dokumentua

100. Zer etapa ditu ingurumen-ikuskaritzak?

- a) Ikuskaritza edo landa fasea eta ikuskaritza ostekoa edo sektore-txostenaren fasea
- b) Aurreikuskaritza edo planifikazio fasea eta ikuskaritza ostekoa edo sektore-txostenaren fasea
- c) Aurreikuskaritza edo planifikazio fasea, ikuskaritza edo landa fasea eta ikuskaritza ostekoa edo sektore-txostenaren fasea
- d) Ikuskaritza-taldearen mende dago

ERRESERBAKO GALDERAK

- 101. Erronka Garbia metodologia jarraian adierazten diren jarduera-ardatzetan aplikatzen da, ekitaldiaren fase bakoitzaren ingurumen-inpaktuak minimizatzeko:**
- a) Erosketak, mugikortasuna, instalazioak, hondakinak, energia eta ura
 - b) Mugikortasuna, hondakinak, energia eta ura
 - c) Erosketak, mugikortasuna eta hondakinak
 - d) Erosketak, instalazioak, mugikortasuna, hondakinak eta energia
- 102. Erronka Garbia ekitaldi baten betekizunak ekitaldi hori definitzeko eta konkretatzeko prozesuaren fase hauei dagozkie:**
- a) Diseinua eta plangintza, antolaketa, ekitaldia gauzatzea eta jarraipena egitea, desmuntaketa eta itxiera
 - b) Antolaketa, ekitaldia gauzatzea eta itxiera
 - c) Diseinua eta plangintza, ekitaldia gauzatzea eta itxiera
 - d) Antolaketa, ekitaldia gauzatzea, jarraipena, desmuntaketa eta itxiera
- 103. Ekitaldien ingurumen-jasangarritasuna egiaztatzeko Erronka Garbia ziurtagiria oinarrizko printzipio batzuetan oinarritzen da, zeinak kontuan hartu behar baitira ekitaldiaren diseinuarekin eta plangintzarekin erlazionatutako erabakiak hartzeko garaian, antolaketan eta ekitaldiaren zikloaren etapa bakoitzean. Zein dira printzipio horiek:**
- a) Bizi-zikloaren ikuspegia, ingurumen-ikuspegia, kutsaduraren prebentzioa, gardentasuna eta sentsibilizazioa.
 - b) Azterketaren helburuen definizioa, azterketaren irismena, inpaktuaren ebaluazioa eta interpretazioa
 - c) Bizi-zikloaren azterketa, baliabideen erabileraren inbentarioa, inpaktuaren ebaluazioa eta gardentasuna
 - d) Egokitasuna, integritatea, koherentzia eta gardentasuna
- 104. Zer izen du ondasun edo zerbitzuak ematen dituen erakunde baten ingurumen-portaeraren irizpide anitzeko neurriak, zeinak bizi-ziklo osoa kontuan hartzen baitu?**
- a) erakundeen karbono-aztarna
 - b) erakundeen ingurumen-aztarna
 - c) bizi-zikloaren azterketa
 - d) ingurumen adierazpena

105. Zer arautan finkatzen dira oinarriak Bizi Zikloaren Azterketako ISO 14040 eta ISO 14044 arauak erakunde-mailan interpretatu eta aplikatzeko?

- a) ISO/TS 14072:2014
- b) UNE-EN ISO 14064-1:2012
- c) UNE-ISO/TR 14069:2015 IN
- d) UNE-EN 14072:2004

106. Zer prozesuren bidez saiitzen dira agintari publikoak bizi-zikloan ingurumen-inpaktu murriztua izango duten salgaiak, zerbitzuak eta obrak eskuratzen, haien tokian funtzio berberetarako eskuratuko liratekeen bestelako salgaiekin, zerbitzuekin eta obrekin alderatuz?

- a) Kontratazio publiko berdearen bidez
- b) Ingurumen-kontratua esleitzearen bidez
- c) Ingurumen-kontratazioaren bidez
- d) Ingurumen-kontratazio publikoaren bidez

107. Emaitzei dagokienez, eta Europako Batasunaren jarraibideekin bat eginez, 2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren helburua da 2020rako kontratazio publikoaren ehuneko jakin batean ingurumen-irizpideak txertatzea. Zer ehuneko da hori?

- a) % 50
- b) % 35
- c) % 25
- d) % 45

108. Ingurumen-etiketen borondatezko zer sistemak identifikatu eta egiaztatzen du ofizialki etiketa hori duten produktu edo zerbitzuek ingurumenean eragin txikiagoa dutela bere bizi-zikloan?

- a) II. motako etiketatzeak
- b) I. motako etiketatzeak edo ekoetiketak
- c) III. motako etiketa ekologikoak
- d) semi-tipo I motako etiketa ekologikoak

109. II. motako etiketatzeak

- a) fabrikatzaileak bere ingurumen-etiketak egiten ditu, sinbolo edo grafikoekin, eta bere ingurumen-irizpideak definitzen ditu
- b) erakunde aintzatetsiek eta sarbide publikoa dutenek aurrez definitutako ingurumen-irizpide batzuk betetzen dituen produktu bati lotzen zaio
- c) ISO 14021 arauak arautzen du
- d) Produktuaren ingurumen-adierazpen ere esaten zaio

110. Zein da Nazio Batuen garapen jasangarrirako hezkuntzaren arloko Munduko Ekintza Programaren helburuetako bat?

- a) hezkuntza eta ikaskuntza birmoldatzea, pertsona guztiek aukera izan dezaten garapen jasangarriari lagundu diezaioketen jakintza, eskumen, balio eta jarrerak bereganatzeko
- b) hezitzaileen eta prestatzaileen gaitasunak areagotzea
- c) gazteei autonomia ematea eta mobilizatzea
- d) toki-komunitateak eta udal-agintariak premiatzea erkidegoan oinarrituriko garapen iraunkorrerako hezkuntza programak landu ditzaten